


AHOZ AHO 2024

Ahozkatasunaren Nazioarteko Jaialdia



Martxoaren 20a egun berezia da Euskal Kontalarientzat.

Ahozkatasunaren Nazioarteko Egunarekin bat eginez, ekimen honekin gatoz INTUJAI TEATROko kideak:

Dakizuen bezala, urtero euskal kontalaritzarekin lotura duen lagun bati **MEZU** bat idazteko gonbitea luzatu ohi diogu gure langintzaren garrantzia lau haizetara zabaltzeko asmoz.

Horregatik, **2024ko AHOZKOTASUNAREN NAZIOARTEKO EGUNAREN MEZUA** idazteko proposamena gure tribuaren erreferente handi bati egin diogu:

JUAN KRUZ IGERABIDE SARASOLA
(Urrezko Kalabaza Saria 2019)

Hona hemen Juan Kruzen mezua...
...Sar dadila Kalabazan!!!

“Tradiziotik”

Ahozko tradizioko ipuin sinbolikoenetako bat kontatu nahi dizuet:

“Garai batean animalia guztiek zekiten mintzatzeko, bai halaber landareek; landareek oro, goroldioak izan ezik.

Arrazoiak edo Logosak ez zuen hasieran hitz egiten; Mitoa soilik zen mintzo. Bide batez esanda, Ulisesen istorioak iragartzen du jada Logosa Mitoari gailenduko zaiola; ez da kasualitatez Atenea Ulisesen babesle, Zeusen burutik jaiotako jainkosa, gogoetaren eredu; ez dira kasualitatez Ulisesen ezaugarri nagusiak buruzkarra eta hizketan trebea izatea; horien bidez menderatuko du Ajax Telamonio (Mitoaren balio heroikoaren eredu) eta Akilesen armak eskuratuko ditu. Homerorengan bertan dago, beraz, gero Sokratesek loratuko duen ernamuina.

Goroldioa triste eta burumakur zegoen, konturatzen baitzen bera bakarrik zela mintzatzeko ez zekiena. Landare ahizpak errukitu zitzaizkion, bada, eta hizketan erakusten saiatu ziren. Egin zuten txistu, egin zuten kantu, egin zuten dantza bere ahizparentzat, egunetan, asteetan, hilabeteetan, urteetan, mendeetan...

Ez zuten, haatik, hari hizketan erakusterik lortu. Orduan, animaliak joan ziren landareei laguntzera. Egin zuten txistu, egin zuten kantu, egin zuten dantza bere ahizparentzat, egunetan, asteetan, hilabeteetan, urteetan, mendeetan...

Haien ahalegina ere alferrikakoa izan zen.

Hainbeste nekatu ziren lan hartan, ezen landareak aurrena eta animaliak gero hizkuntza galtzen hasi ziren. Aurrena, elkarri ulertzeko zailtasunak izan zituzten. Gero, ez zuten tutik ere ulertzen. Eta, hala, hitz egiteari utzi zioten; zertarako hitz egin, ez baitzioten elkarri ezer esan ahal?

Landareek erabat galdu zuten mintzoa. Animaliek, aspaldiko altxorraren oroigarri, silaba bat gorde zuten espezie bakoitzeko; horrela, gaur egun oraindik ere batzuek *mu* esaten dute, beste batzuek *be*, beste batzuek *miau*.

Alabaina, hasieran goroldioa salbuespen izan zen bezala, geroan animalia bat izan zen salbuespen, ezen silaba guztiak bildu eta hizkuntzaren jabe egin zen; bi hankako animalia bat zen, itxura guztien arabera. Ulises-Prometeo bat.

Haizeak landareak gogor astintzen dituenean, badirudi landare haiek antzinako hizkuntza oroitzeko ahalegina egiten ari direla, eta txistu egiten dute era askotan, silaba bat atera nahian ari balira bezala. Goroldioak ez du egiten hori; goroldioak isilik dirau, harrien gainean uzkurturik, triste eta erdi lizundurik”.

Ipuin honek mitoaren lurraldera garamatza; poesiaren, sinboloaren eta analogiaren lurraldera; panteismo animistaren lurraldera, non dena baita mintzo musikaren bidez, non dena baita mintzo koloreen eta irudien bidez.

Ametsen lurraldean gaude, denbora biribilaren lurraldean.

Tradizioaren iturriak gizakiaren imajinarioan daude, non mintzo baita natura guztia; imajinario horrek jasotzen du mendez mende denboraren errotan dabilen jakituria.

Tradizioak badu biltegi bat; biltegirik gabeko tradizio bat, memoriarik gabekoa, aingurarik gabekoa, berehala eramaten du globalizazioaren haize-zirimolaren alderik baldar eta gaiztoenak. Haatik, gauza bera gertatzen zaio biltegi ederreko ateak ondo itxirik dauzkan tradizioari; inork ez dezala kutsatu; liburutegi ederrak ditu, baina irakurlerik ez. Errota geldirik. Dena goroldio.

Biltegia eta erabilera. Bestela, jai dugu. Sehaskako haurra da tradizioa, ondo zaindua, ondo elikatua, kanta epeletan bildua eta kulunkatua, oba, oba, loa, loa, txuntxurrun berde, ttunkurrunku ttunkurrun kuttuna; oinez ikasi eta munduan zehar dantzatuko den haurra, ttikirriki, ttikirriki, ttikirriki ttona.

Juan Kruz Igerabide Sarasola
(*Ahozkotasunaren Nazioarteko Eguna, 2024-03-20*)

